

KIROL KLUBENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN ARAUAK KIROL EKINTZAK SUSTATZEKO ETA BULTZATZEKO

Udalaren Kirol Zerbitzuaren xedea da kirola sustatzea eta Kirol Eskolak sortzea eta, era berean, Uharteko herritarrek gorputz heziketa lantzea eta kirol-jarduera afizionatuak garatzea. Horrela bilduta dago Zerbitzuaren Ordenantzan 2.a artikuluan.

Udalaren Kirol Zerbitzuaren borondatea da auzokideak berak kirolaren antolaketa-egiturari lotzea, Uharteko elkartegintza sustatzen saiatzeko. Hori dela eta, komeni da behar diren lanabesak abiaraztea Kirola Zerbitzuaren eta Kluben arteko lankidetzaz-ildoa ezartzeko; horrela, denon arteko ahaleginez eta, koordinaziopean lan eginez, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Alde horretatik, deialdi honen xedea da Kirol Klubentzako dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea 2025ko urriaren 1etik 2026eko irailaren 30era.

1. Xedea

Dirulaguntzak erabiliko dira, planteatutako kirol ekintzak egiteak eragindako gastuen defizitak hein batean ordaintzeko.

Behin betiko dirulaguntza emanen da, klub eskatzaileak kirol arloan jarduketa globala egiten badu; hau da, jarduerak ez dira noizbehinka egindakoak eta jarraipenik gabekoak izan behar.

Dirulaguntza ez da emanen, Udalaren Kirol Zerbitzuaren aurrekontuan kontusailik eskura ez badago.

2. Onuradunak

Deialdi honen xede den dirulaguntza eskatzen ahal dute kirol elkarten erregistroan izena emanda dauden kirol klubek, jarduera nagusia Uharten egiten badute.

3. Agiriak

Eskabidea

Dirulaguntza-eskabideak, eskabide orokorrarekin batera, Kirol Zerbitzuak emandako inprimakietan edo haien ereduarekin bat aurkeztuko dira.

Eskabidea noiz eta non aurkeztu

Eskabideak Uharteko Udalaren egoitz elektroniko bidez aurkeztu beharko dira, deialdia NAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eta 5 egun balioduneko epean.

Agiri osagarriak

2026eko urriaren 1aren aurretik hau guztia aurkeztu beharko da: gastuen eta diru sarreren justifikazio inprimakiak.

4. Balorazioa

Uharteko Kirol Zerbitzuak behar diren egiaztapen guztiak egin eta balioetsiko ditu dirulaguntzen inguruko ebazpena emateko.

Kirol Zerbitzuak agirietan bilduta dagoen informazioa zabaltzeko edo hobetzeko eskatzen ahalko die Klub eskatzaileei, eskabideak ahalik eta hobekien ebaluatze aldera.

- Eskabideen ebazpena urtea amaitu baino lehen emango da.
- Eskabideak ebazteko organo eskuduna Zuzendaritza Batzordea izanen da eta, halakorik ezean, Zuzendaritza Batzordeko burua.

UKEetako lankidetza hitzarmena indarrean duten entitateei laguntza eta aholkularitza teknikoa emanen die UUKZak, bai eta dirulaguntzak ere, denboraldi bakoitzean dituen baliabide ekonomikoen eskuragarritasunaren arabera, eta bere kirol egiturarekin bat.

UUKZaren dirulaguntza bateragarria izanen da beste entitate publiko edo pribatuek egin ditzaketen dirulaguntza eta ekarpenekin; hala ere, ekarpen guztien baturak ezin izanen dute entitatearen superabita ekarri.

UUKZaren ekarpenak, UKEetako dirulaguntzen bidez, lehiaketa ofizial hauek prestatzeko eta horietan parte hartzeko jarduketak eta horien ondoriozko gastuak estaltzera mugatzen da:

Nafarroako Kirol Jokoak.

Bestelako lehiaketak, ofizialki aitortuak Nafarroako Kirol Jokoetan sartzen ez diren diziplina eta/edo kategorietarako, aurrez UUKZaren adostasuna izanik.

Ekarpen horiek jasotzeko, hitzartutako entitateak araudi hau errespetatu, eta beharrezko memoriak eta justifikazioak aurkeztu beharko ditu.

Aurrekontuak egitea: kirol denboraldiaren urrian eta azaroan, UUKZaren kirol koordinatzaileak bilerak egingen ditu hitzartutako entitate bakoitzeko arduradunekin, UUKZak egin beharreko ekarpen ekonomikoa aztertu, baloratu eta erabakitzeko. Bilera horietan, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da idatziz:

Honakoak izango dira dirulaguntza hau esleitzeko irizpideak:

a. Kirol-sustapenagatiko dirulaguntza: kirol-eskoletako kideak klubetara egituretara pasatzea aurreikusiko da. Helburua: UKEetako kideek Kirol klubetan parte hartzen jarrai dezaten sustatzea. Kalkulu-irizpidea: UKetik klubera pasatako kideen ehunekoa, federazio-gastuengatiko dirulaguntzari aplikatuta

b. Giza baliabideetarako dirulaguntza: partida honetan aurreikusten dira UKEn koordinaziorako eta monitoreentzako gastuak.

c. Koordinaziorako dirulaguntza: kopuru finko bateko ekarpena egingen da UKEn maila teknikoko eta kirol mailako zuzendaritzarako, gutxienez (kirol kolektiboetako) 7 talde kudeatzen dituen, edo denboraldian zehar (banakako kirolekin)

lehiatzen ari diren eta federazioko lizentzia duten 45 ikasle kudeatzen dituen koordinatzaile minimo bat dutenentzat.

d. Monitoreentzako dirulaguntzak:

Helburua: entrenamendu eta prestakuntza fisikoko gastuak, bai eta kirol praktikari eta irakaskuntzari zuzenean lotutako bestelakoak ere.

Kalkulurako irizpidea: monitore bat ezarriko da, talde bakoitzeko. Ekarpen hori ezartzeko irizpideak, honako hauen arabera finkatuko dira:

Taldeko monitore titularraren titulazioa.

Iraupena: 8 hilabete eta erdi (prestakuntza-lanaren arabera).

UUKZen kirol egituraren arabera (taldeak, prezio publikoak, etab.) asteko entrenamenduaren orduak izaten ahalko dira kontuan.

Kalkulurako dokumentazioa: 1. eranskina beteta aurkeztuko da, monitorearen titulazioaren egiaztagiriarekin batera. Dokumentazio hori exijituko da, deialdi edo denboraldi guztietan.

Monitoreen artean denboraldian zehar aldaketak izanez gero, aldaketa horiek kontuan izan beharko dira egiaztagirian, eta titulazio berrian islatu beharko dira. Kontzeptu horregatik emandako dirulaguntza kentzen ahalko da, titulazio aurrekontuan aurkeztutakoa baino txikiagoa denean. Inola ere ezin izanen da hasieran emandako dirulaguntza handitu, nahiz eta monitore berriaren titulazioa handiagoa izan.

e. Federazio gastuetarako dirulaguntza:

Xedea: taldeen izen ematearekin lotutako gastuak, UUKZak ezarritako federatutako (federazio zergak) eta ez federatutako hainbat lehiaketetan. Beste erakunde batzuek diruz lagun ditzaketen kontzeptuak edo itzultzen direnak (abalak) ez dira diruz lagunduko.

Hauek dira gastu diruz lagungarriak:

- UKEko ikasle eta monitoreen baimenak.
- Mutualitateak.
- Taldeen izen-emateak lehiaketetan.
- Federazio-isunak, erantzukizuna UUKZari egozten ahal zaionean.
- Lehiaketa ofizialetako epaileak.
- Parte hartu ahal izateko ezinbesteko beste federazio-kontzeptu batzuk.
- Baztertutako gastuak: honako hauek ez dira gastu diruz lagungarriak:
- Baimenak eta mutualitateak, baldin eta 51. artikuluan aipatu lehiaketetan parte hartu ahal izateko beharrezkoak baino gehiago badira.
- Fidantzak, abalak eta antzekoak.
- Klubaren federazio altak.
- Federazio-isunak, erantzukizuna UUKZari egoz ezin dakiokenean.
- Lagunarteko partidetako epaileak.
-

Kalkulu irizpidea: 1. eranskinean jasotako hitzartutako entitatearen aurreikuspenaren arabera.

f. Baliabide materialetarako dirulaguntza: Partida honetan bulegoko materialerako, kirol materialerako eta kirol ekipamenduetarako gastuak aurreikusten dira.

g. Bulegoko materialerako dirulaguntza:

Xedea: paper-gauzetarako, fotokopietarako, telefonorako, Interneterako eta UKEren kudeaketarako bestelako horniketetarako gastuak.

Kalkulurako irizpidea: ekarpen finkoa ikasle kopuruko. Ikasle kopurua izanen da hitzartutako erakundearen ekarpena balioesteko unean UUKZaren datu-basean agertzen dena.

h. Kirol materialetarako dirulaguntzak:

Xedea: kirol materiala erostea, UKEko entrenamenduetarako eta lehiaketetarako.

Arau orokor moduan, UKEetarako kirol materialaren erosketaz UUKZ arduratuko da, eta “Kirol jardueren materiala” aurrekontu partidaren kontura egingen da, eta ez dirulaguntza bidez. Kontzeptu horretarako dirulaguntza hautemanen da soilik UKEren funtzionamenduak hala justifikatzen duenean.

i. Kirol jantziatarako dirulaguntza:

Xedea: lehiaketarako kirol jantziak erostea, araudi honen 20. artikuluan jasotakoa betez.

Arau orokor moduan, UKEetarako kirol materialaren erosketaz UUKZ arduratuko da, eta “Kirol jardueren materiala” aurrekontu partidaren kontura egingen da, eta ez dirulaguntza bidez. Kontzeptu horretarako dirulaguntza hautemanen da soilik UKEren funtzionamenduak hala justifikatzen duenean.

UKEetako lehiakortasun ezaugarriak oso ezberdinak direnez, UUKZk kasu bakoitzean balioetsiko du ekipamenduak erosteko egokitasuna.

Baztertutako gastuak:

Ez dira dirulaguntza honen xede izanen lehiaketarako ezinbesteko kirol jantziatarako (txandala, poltsa, berokia...) beharrezko gastuak gainditzen dituztenak; ulertzen da haiek hitzartutako entitateak, eta/edo aitek, amek eta/edo legezko tutoreek hartuko dituztela beren gain.

Desplazamenduak: arau orokor moduan, UUKZk ez ditu diruz lagunduko lehiaketetarako desplazamenduak. Aitak, amak eta/edo legezko tutoreak arduratu beharko dira haien seme-alaben desplazamenduez. Hitzartutako erakundeak desplazamendu horiek kudeatzen ahalko ditu, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kirol Jolasen lehiaketetarako hitzartutako autobusen bidez.

Desplazamendua beste era batera ordaindu ezin denean eta UUKZak interes handiko desplazamendua dela balioesten duenean laguntzen ahalko da soilik diruz. Kasu horiek, aurrez baimenduko dira, eta garraio publikoaren bidez edo garraio enpresen bidez eginen dira.

UUKZak ez du inolako erantzukizunik hartuko ikasleen garraioaren gainean.

Erakundeak aurkeztutako gastuen aurrekontua diruz lagungarria den gehieneko gastutzat hartzen da; ondorioz, UUKZak ez ditu sor daitezkeen defizitak ordainduko.

Gastuen justifikazioa eta kirol memoria: kirol denboraldi bakoitzaren amaieran, urte bakoitzeko irailaren 30 baino lehen, UKEetako lankidetzak hitzarmena indarrean duten entitateek UUKZari aurkeztuko dizkiote bukatu berri den denboraldiari dagozkion kirol memoria eta memoria ekonomikoa.

Memoria ekonomikoa: 2. eranskina beterik aurkeztuko da. Justifikazioak emandako dirulaguntza osoa frogatu beharko du eta, behar izatera, azken ordainketan pagatu beharreko zenbatekoa murriztuko da, justifikatu gabeko dirulaguntzaren zenbatekoaren proportzioan.

Kirol memoria: honako datu hauek jasoko ditu gutxienez:

- UKEren funtzionamendu orokorra.
- Partaidetza eta emaitzarik esanguratsuenak.
- Funtzionamenduari, instalazioei eta kirol materialei lotutako gabezia nagusiak.
- Hurrengo denboraldirako hobekuntza proposamenak.
- Jakinarazi nahi den beste edozer.

Deskontuak: behar bezala justifikatu gabeko edo araudi honetan ezarritako xede eta/edo irizpideak betetzen ez dituzten zenbatekoak deskontatuko dira.

Dirulaguntza ekonomikoaren ordainketa: emandako dirulaguntza transferentzia bidez abonatu da honako epe hauetan:

- emandako dirulaguntzaren %50 urtarrilaren 31 baino lehen.
- emandako dirulaguntzaren %25 otsailaren 28 baino lehen.
- gainerako %25 gastuen justifikazioa eta kirol memoria balioetsi ondoren.

Prestakuntzari laguntzeko dirulaguntza: UUKZak diruz lagunduko du, hitzartutako entitateekin elkarlanean, UKEetako monitoreen eta koordinatzaileen formakuntza.

Xedea: entitate publikoek edo kirol federazioek antolatutako formakuntza ekintzetan edo ikastaro ofizialetan izena emateko gastuak.

Onarpenerako irizpideak:

Erakunde publikoen eta federazioen ikastaro ofizialak onartuko dira soilik.

UUKZari laguntza eskatzen zaion urtean egin eta gainditu beharko da ikasturtea. Ez aurreko, ez ondorengo urteetan.

Dirulaguntza esleitzeko, ikasturte osoa gainditu beharko da, eta dagokion ziurtagiria jaso beharko da.

Diruz lagunduek monitore-lana bete beharko dute UUKZako kirol eskola batean. Klubak zein kirol eskolako monitore batek eskatzen ahalko du dirulaguntza.

Kalkulatzeko irizpidea:

UUKZak ematen ahal duen dirulaguntzak ikastaroetan izena emateko gastuak izanen ditu kontuan soilik, eta inoiz ere ez da gastuaren %25 baino gehiagokoa izanen (ezta pertsonako 150 euro baino gehiagokoa ere).

“Formakuntzari laguntzeko” dirulaguntza eta horren kopurua urte amaieran ezartzen ahal dira “Kirol klubentzako eta eskolentzako dirulaguntzak” aurrekontu partidako funtsaren bidez.

Aurrekontu partida horretan funtsik ez badago, ezin izanen da eskaerarik hartu edo ez da deialdirik ateratzen ahalko, eta gehienez ere ondoko urtean erantzuten ahalko da soilik, eta beti ere aurrekontu partida dagoenean eta monitoreak kirol eskolan laguntza ematen jarraitzen duenean.

Eskaera guztientzako lehen irizpidearen ezarpena partidari erabilgarri dagoen kopurua baino handiagoa bada, eskaerei modu berdintsuan erantzuteko saiakera egingen da, erabilgarri dagoen kopuruaren arabera.

Aurkeztu beharreko agiriak:

“Prestakuntzarako laguntza” eskaera orokorra, non zehaztuko den nork eskatzen duen laguntza (kluba edo partikularra), norentzat den, eta eskatzaileak urte horretan zein kirol eskolari (taldea, ordutegia eta egunak) ematen dion laguntza teknikoak.

Ikastaro hori ofiziala dela eta erakunde publiko edo federazio batek antolatzen duela eta ikasturte horretan egin dela egiaztatzen duten agiriak. Ikastaroa gainditu izana egiaztatzerian zehazten bada, agiri hori ez da beharrezkoa.

Ikastaroa gainditu izanaren egiaztatzea edo hori egiaztatzen duen agiria. Agiri hori bideratzen ari badira edo oraindik eskuragarri ez badago, hala adierazi beharko da eskaeran; hala ere, nahitaez aurkeztu beharko da laguntza jasotzeko unean.

Formakuntzako ikastaroa edo ekintza antolatu duen kirol federazioaren edo entitate publikoaren faktura, klubaren edo partikularren ordainagiriarekin batera.

Adostutako dirulaguntzaren ordainketa eginen litzaiokeen klubaren edo partikularren kontu-zenbakia, dirulaguntza aurrera eramanez gero.

5. Klubaren betebeharrak

Eskabideko zer kirol ekintzak jaso duten dirulaguntza, Klubak horiexek egin beharko ditu.

Klubak kirol eskolaren eta programatutako gainerako jardueren antolaketa eta kudeaketa hartuko ditu bere gain (betiere, Udalaren Kirol Zerbitzuak ezarritako irizpideak errespetatuta, eskolako titularra baita). Barne dago lehiaketak antolatzea, lehiaketa horietan parte hartzea, entrenamenduak antolatzea, joan-etorriak, fitxak kontrolatzea, kasuan kasuko Federazioarekiko harremanak eta, era berean, monitoreen edo entrenatzaileen koordinazioa bai teknikoa bai antolaketa arlokoa.

Klubaren erantzukizuna izanen da jardueren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte guztiak ordaintzea. Xede horretarako, Klubak aseguru bat egin beharko du, aipatu jardura hori egiteak dakarren erantzukizun zibila estaltzeko.

Dirulaguntza jasotzen duten klubek Uharteko Zerbitzuaren eta Kutxa Ruralaren logotipoa eta anagrama erabili beharko dituzte dirulaguntzaren xede izan diren jardueren inguruko publizitatean eta zabalkundean, bai eta kirol-jantzietan ere; era berean, Zerbitzuaren laguntza edo babesa jaso dutela agertu beharko dute.

Klub onuradunek Uharteko Kirol Zerbitzuarekin elkarlanean aritu beharko dute jarduketa fisikoa eta kirola sustatzeko lanean. Elkarlan hori honela gauzatuko da:

- Ugarrandiako kirol instalazioetako abonatuak jardueren berri ematea, klubaren informazio-taula erabilita; taula instalazioen sarreran dago, berariaz xede horretarako.
- Bere jarduerak eta txapelketako partidak herriko web orrietan argitaratu.
- Kirol Zerbitzuaren aldizkaria prestatzen laguntzea, Klubak egindako kirol jardueren berri emanez.
- Zerbitzuari laguntza ematea bestelako kirol ekitaldiak antolatzeko, Zerbitzuak horixe eskatzen duenean.

6. Zerbitzuaren eskubideak eta betebeharrak

Kirol Zerbitzuak Klubari diru kopuru onetsitakoa emanen dio, deialdi honetan xedatutako moduan eta epean, “kirol jarduerak sustatzeko eta bultzatzeko dirulaguntza” kontzeptuaren barruan.

Bateragarria da dirulaguntza hau ematea eta Klubaren Batzordeak ekimen pribatutik (bai babes-kontratuak sinatuta bai borondatezko ekarpenen bidez) bestelako diru ekarpenak jasotzea;

Kirol ekarpenarekin batera, Kirol Zerbitzuak gutxienezko kirol materiala emanen du aipatu Klubak bere jardura egin dezan; argi gelditu behar du, dena den, material horren

jabea Kirol Zerbitzua dela, eta Zerbitzua bera arduratuko da huraxe kontrolatzeaz; egoki ikusten duenean, gainera, materiala erabiliko du.

Kirol Zerbitzuak behar diren kirol instalazioak jarriko ditu Klubaren eskura, programa garatzeko, Zerbitzuak berak bere Zuzendaritza Batzordearen bitartez finkatzen dituen erabilera-aukerekin bat.

7. Ez-betetzea

Deialdi honen oinarrietan ezarri dena ez betetzeak, gezurrezko datuak emateak edo Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren baimenik gabe dirulaguntzaren helburuak aldatzeak dirulaguntza galtzea ekarriko du berekin, jasotako dirutza itzuli beharra eta hurrengo eta helburu bereko edo bertsuko dirulaguntza eskaerak ukatzea ere izan dezake ondorio.

8. Sobran dauden baliabideak

Justifikazio ekonomiko eta teknikoak dirulaguntzaren xede izan zen eskabidean aurreikusten zena baino txikiagoa denean, dirulaguntza gutxituko da.

Hala ere, jardueren interesagatik, zilegi izango da hitzarmenak sinatzea diru sobrantea dirulaguntzaren helburu zirenak bezalatsuko helburuetan erabiltzeko.

9. Diru-laguntza nola eta noiz ordainduko den

Emandako dirulaguntza transferentzia bidez ordainduko da, epe hauen barruan:

- Emandako dirulaguntzaren % 50, 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen.
- Emandako dirulaguntzaren % 25, 2026ko otsailaren 28a baino lehen.
- Gainerako % 25, gastuak eta egindako kirol ekintzak justifikatzerakoan.

10. Araubide juridiko osagarria

Ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legea osagarritasunez aplikatuko da.

11. Lehenengo xedapen iragankorra

Deialdi honetako 4. puntuko a) letra informazio-klausula gisa sartzen da, deialdi honetako balorazioetan eta 2026-2027 urtekoan ere eraginik izan gabe, klubentzako abisu gisa balio dezan. Hala, hurrengo bi urteetan, irizpide hori barne-funtzionamenduan txertatu ahal izango dute, tokiko kirol-elkartegintzan ondorio negatiboak saihesteko.